

LEHORREKO ARRANTZALEA

JOSTIRUDIA BAKAR
ETA BI ZATI ATAL BEREAN

BIGARREN ALDEERA ZESTOAN IRABAZITAKOA

JOXE ARTOLA

ERREAL BINA

DONOSTIAN
J. BAROJA ETA SEMEAREN MOLDIZKIRAN

1898

LEHORREKO ARRANTZALEA

JOSTIRUDIA BAKAR
ETA BI ZATI ATAL BEREAN
BIGARREN ALDEERA ZESTOAN IRABAZITAKOA

JOXE ARTOLA

SAN SEBASTIÁN
Imprenta de J. Baroja é hijo, Constitución, 1 y 2

1898

IRUDIGILEAK

EGINTZAILEAK

Maria (esneduna).....	Buenetxea Jesusa
Andre Terexa	Ganboa Karmen
Inazio Arrantzale (Patroia).....	Kasal Felipe.
Agustin (erdi bertsolaria)	Artola Joxe.
On Juan (Erregidorea)	Altuna Raimundo
Pedro (herri gizon alaia)	Altuna Pablo
Praixku (baserritarra)	Andonegi Domingo
Mutila	Uriarte Joakin
Lau tokalari zizarrista	

Euskal jostiruditar lagunkida “Euskaldun Fedeari” eta bere Dianagusi On Juan Ignacio Urangari donkitzen dio maitasun handiaren gaiaz egintza urri eta goitiritzi gabeko hau bere egile

JOSE ARTOLATARRAK.

LEHORREKO ARRANTZALEA

Oharkera.- Biltokiak aurkeztatzen du kalea, eta egilearen ezker aldetik, On Juan erregidorearen etxea bere leihoeekin, eskuinetara Inazio patroia-aren etxea kale aldetik sarrera duela. Gortina altxatzerakoan azaltzen da Inazio, arrantzako soin eta otarrarekin.

LEHENBIZIKO IRUDIA

I

Inazio bakarrik

INAZIO

Jaungoikoari eskerrak, ondo egin dugu gaurko irteera eta ibilera. Lana da munduan den gauzarik onena; lanak erremediatzen ditu lanak. Nekearen hurrengo soseguak dira goxoenak eta ez-titsuenak. Noan etxera, nire ama maitearengana, gaixoa! pozkidatu dadila bera seme hau ikusita.

Orain arropaz aldatu eta hona, bai, hona; ea ikusten dudan nire bihotz tentatzaile Maria, honantz, aurrera etortzen da egunero, euskal herriko janzkera eta usadio jatorrean, garbi eta txukun, On Juan erregidorearen etxera, esnea ekartzera, hori da nire amak eta nik begiz joa. On Juanek nire amari esan zionez, Maria nitaz gustatua dago. Berak aurpegi alai-ai jartzen dit beti ikustean; nik berriz alaiagoa, baina hain naiz lotsatia!, ez dut balio berari nire bihotz xamurreko borondatea agertzeko... Agustin mutilzaharra badator, hori dut nik lagunik maiteena munduan; baina nire asmoaren berririk ez daki, eta gorde dezagun beti bezala barrengo harra; ez dezala ezer igarri.

BIGARREN IRUDIA

II

Lehengoa eta Agustin

(Agustin agertzen da ezker aldeko kaletik, arrantzako otarra galtzarbean duela eta belarrian zigarroa).

INAZIO

Agustin, zer modu?

AGUSTIN

Ondo; eta hi?

INAZIO

Ongi, Jaunari eskerrak.

AGUSTIN

Pozkidatzen nauk.

INAZIO Zer modu gaurko arrantza?
 AGUSTIN Hainbestean, mutil; ibilera luzea izan diagu, baina nekatu arren, zerbait harrapatzen bada, neke eta nahigabe denak ahazten dituk.

INAZIO Arrazoi duk.
 AGUSTIN Eta zuek nola zarete, ezer ba al zen?
 INAZIO Bai, suertea izan diagu, txapela bete haizerekin gindoazaan erdi penatuak urrutira, eta uste gabean inguruan sortu zaiguk arraina, eta egin diagu antxeta.

AGUSTIN Baina zer zen, antxeta edo arraina?
 INAZIO Hi beti iguala, puntuak hartzeko.
 AGUSTIN Galtzerdia al haiz, bada, puntuak hartzeko?
 INAZIO Ba... ba... utz itzak txorakeriak eta goazemak agudo aldatzera.

AGUSTIN Gero nora bilduko gara?
 INAZIO Praixkuren sagardotegira.
 AGUSTIN Ongi zagok! Han zanbulla eta lenta egingo diagu.
 INAZIO Aizak, Agustin; Txintxoenero baserrian izugarritzko sagardoa hasi omen duk.

AGUSTIN Bai?
 INAZIO Bai; eta gainera bolatoki eta leku ederrak omen ditik, lehenago ere baserrian ordu gozoak igaro izan ditiagu.

AGUSTIN Hik bai, baina nik...
 INAZIO Hik ere bai; beti ni naizen lekuan izaten haiz eta... Mutil; joan behar diagu.

AGUSTIN Urruti egongo duk; eta gero erremolkean etorri beharko diagu.

INAZIO Enkallo geratzen bahaiz, botako dizkiat *amarrrak*.
 AGUSTIN Hamaikak ez al dira hobeak?
 INAZIO Goazemak, atzandela izango duk eta...
 AGUSTIN Baina Inazio patroia! Hik sagardoarengatik edo gonadunarengatik nahi duk joan?

INAZIO Hi bezalako mutilzahar zelosoari egia esan behar zaiok bai, eta... joaten nauk biongatik.

AGUSTIN Ni, berriz, gonadunen ondora ez joateagatik, itzuliko nindukek, itsas zabalera edo arroka tartera, nahiz gilaz gora gelditu.

INAZIO Bai esan... paper asko egin, baina gero kupel ondora, atrakatu eta fondo bertan.

AGUSTIN Hi bai, aingurak bota eta egoten haizela.
 INAZIO Bai, kupelari kontu egiteagatik.
 AGUSTIN Edo neskari kontu hartzeagatik.
 INAZIO Eta hi?
 AGUSTIN Ni...? begira iezaio, Inazio, esan diat mila bider mutilzahar geratuko naizela, eta hala geldituko nauk.

INAZIO Ezkontzen ez haizen bitartean.
 AGUSTIN (*Presaka*) Baita ezkontuta ere.
 INAZIO Zer, zer?

AGUSTIN Ez, halere ez banu hartzen, bizi naizen bitartean nahian esan.

INAZIO Denbora izango duk testigu, eta ni ere bai.

AGUSTIN Bai horixe; orain goazemak aldatzera eta gero hitz egingo diagu.

INAZIO Bai, hala duk, goazen orain... Gero hona bertara bilduko gaituk.

AGUSTIN Hik etxea hemen daukak; ni banoak nire etxera hemendik barrena.

INAZIO Hemendik barrena ez, hemendik kanpora.

AGUSTIN Bai, hala duk.

INAZIO Adio, Agustin, gero arte.
(*Honetan azaltzen da Maria buruan otarra eta marmita zapi zuri tartean ageri duela. Agustin ondotik sartzen da belarriko zigarroa piztuaz.*)

MARIA Egun on Jainkoak dizula. (*azalduaz*)

AGUSTIN Egun on zuri ere. Noan hemendik agudo aldatzera (*joaten da*)

HIRUGARREN IRUDIA.

III

Maria (*bakarrik*)

MARIA Honezkero berandu iritzirik egongo dira nire esne hartzaileak; izan ere, beti zerbait gertatzen zaigu bidean eta gaur, lagun baten zain berandutu egin zait. Noan, noan agudo nire eginkizunetara. Honantz sartzerakoan ikusi dut Inazio, bere etxera sartzen ari dela; beti bezala, hura begiratu txorrotxa egin didan zeharka gizajoak. Zer umila eta zer lotsatia den, ez du beste batzuen antzik... baina...! Jesus nirea! zer ari naiz ni denbora pasatzen hemen? On Juan nagusi ona zain egongo da eta noan, noan lehenbailehen. (*Sartzen da On Juanen etxean*)

LAUGARREN IRUDIA

II

Inazio (*bakarrik; ondo jantzia*)

INAZIO Hau ez da miseria? Nik bihotzean senti dudanaren nahitasunaren jabea ikusi dut hemen sartzen, eta bere ondoren nator korrokoia beitarra bezala: beti hitz gozoren bat esan nahian nabil bakarrik aurkitzean; eta bakarrik geratzean, txipiroia baino bigunago jarri eta mututu egiten naiz zoragarri hari begira, baba

daridala. Ai nire barren sutzailea!, izazu txingar bizi hau itzaltzeko grazia, bestela kiskaliko nau su gabeko gar honek, baina... Agustín badator; ez dezala igar nire bihotzaren konturik, gorde dezagun asmo hau, liburu bat ixten den moduan, orri batek bestea estutu eta estaltzen duen gisa... Agustini esango diot bere zain nengoela.

BOSGARREN IRUDIA

V

Inazio eta Agustín (*hau apaindua*)

AGUSTIN Hemen al haiz, Inazio? Goiz prestatu haiz.
INAZIO Bai, oraintxe etorri nauk eta begira nengoan ageri ote hintzen.

AGUSTIN Horren txikia al naiz ez ikusteko?
INAZIO Betiko moduan hator, umorekoa.
AGUSTIN Bai, Jainkoak dohain hori eman zidak; ea, goazemak Praixkueneko sagardotegira, hemen gaur egon gabe lurrari begira.

INAZIO Ez, egon hadi pixka bat.
AGUSTIN Zer delako? Damutu egin al zaik lehengo hitza?
INAZIO Ez gizona...
AGUSTIN Ni ez nauk gizona. (*Presaka*)
INAZIO Bai, bazekiat zer haizen.
AGUSTIN Zer nauk bada?
INAZIO Mutilzahar... zimarroia; horra esan.
AGUSTIN Goazen, goazen, lema jiratuta.
INAZIO Agustín, lagun zaharra, hemen giro ederra zagok eta pixka batean egoteko gogoia zeukaat.

AGUSTIN Zertan? Txoriak izutzen, edo izarrak ikusten?
INAZIO Bai... ikusi... nahian.
AGUSTIN Zer, haizea?
INAZIO Ez pasea, (neskatxarena).
AGUSTIN Hau duk kasketa klasea.
(*Irteten da Maria Erregidorearen etxetik eta kanpora joango da*).

SEIGARREN IRUDIA

VI

Lehengoak eta Maria

MARIA Agur, Inazio, konpainiarekin.
AGUSTIN Agur, marmita eta batailoiarekin.

(*Maria doala atzetik begiratuaz*) Zeru goieneko izar dizdizaria; hori duk mirabea eder eta guria; bazirudik maiatzeko marrubia.

ZAZPIGARREN IRUDIA

VII

Inazio eta Agustin

INAZIO Ederra iruditu al zaik?
AGUSTIN A, marrajoa! Ez al diok begiratu?
INAZIO Nik?... Segadan, poparean, andara bizian joan duk eta.
AGUSTIN Eta... eta? Hik ez didak ziririk sartzen gezur eta abar, Inazio, hi horren usainean habil izurdea bokartaren bezala; horrengatik hengoen hemen zain; hargatik, ikusi duanean, zuri-zuri egin haiz katuarrainen modura; goazen, goazen, Praixkuenera.
INAZIO A?... Txintxueneko baserrian hasi omen duk sekulako sagardoa.
AGUSTIN Orduan, sekulakoa bada, ez duk behin ere ahituko.
INAZIO Hi beti iguala!
AGUSTIN Bai, nahi eta nahi ez.
INAZIO Egia.

ZORTZIGARREN IRUDIA

VIII

Lehengoak eta Pedro (*hau ondo jantzia*)

PEDRO Kaixo, jaunak.
AGUSTIN Ongi etorri, Pedro.
PEDRO Zuek, arrantzaleek jakiten duzue sagardo ona non dagoen eta ikusi zaituztedanean, galdetzera etorri naiz.
INAZIO Gaur jakin dugu Txintxueneko baserrian hasi dela txotx berria.
AGUSTIN Bai; honek esan duenez, sekulakoa omen da eta oraindik inork edan gabea.
PEDRO Hauek esaerak! Beti bezala, umorekoa zaude.
INAZIO Hau ez al daki zein den?
PEDRO Bai, bai!, ongi, ongi; eta zein aldetan egiten da baserri hori?
INAZIO Esan digutenez, galtzada luze pasa eta eskuin aldera dagoen etxea omen da; bere bolatoki eta guzi, zelai ederrak eta leku alaiak omen ditu bere inguruan.
AGUSTIN Gu ez gara behin ere izan baserri horretan baina Jaungoikoak nahi badu, guk bezala, gaur goiz xamar

itsasotik etorri eta arratsalde guztirako joan behar dugu.
INAZIO Honezkero Praixkuenekoekin pasa beharko dugu.
PEDRO Eskerrik asko, Jaunak; agur.
BIAK Agur, Pedro; ondo ibili.
INAZIO Goazemak gu ere beti hemen egon gabe, honezkero sagardoa hozten zagok.
AGUSTIN Ostu, zeinek, lapurrak?
INAZIO Beti igual; goazen, goazen. (*joanaz*)
AGUSTIN Eta han egingo diagu fondo; hara esan nik orain ondo. (*joaten dira*)

BEDERATZIGARREN IRUDIA

IX

On Juan (*bakarrik; eskuan makilarekin irteten da bere etxetik.*)

ON JUAN Aberatsak, bai!, aberatsak! Zertarako dut dirua? Nahiago nuke orain joan diren horien sasoia: Dirurik ez nuenean, nuen apetitu ona, ezin asean, inola bete ezina; eta orain dirua dudanean, ezertarako gogorik ez; hau mundu desberdina! Esan dezagun..., gauza guziak ez dira nonbait komeni, dirua ere borobil bat delarik, ez ditu bi alderdiak igualak. Zer egingo da, bada! Ezaguera badut eta hargatik dena pazientzian hartzen dut; Jaungoikoak denei dohain diferenteak bidali dizkigu: bati politasuna, besteari gizontasuna, beste askori ezaguera; hala niri eman dit pazientzia, eta kontentu naiz nire izaerarekin. Maria esne ekartzaileak esan didanez, haien etxean, Txintxuenean, sagardo guztiz ona saltzen jarri dute, eta nahiz ez edan, paseatuaz joango naiz. Hango usain goxoa adituaz eta jendea ikusiaz denbora hobeto atseginduko dut; gainera Maria egongo da sagardo saltzen, eta txuliatuko dut pixka bat: bera ere kontu eta tildeetarako oso grazia handikoa da; lastima litzateke asko moduko eskuetan erortzea horrelako arrosatxoan. Noan, noan, ttapa-ttapa, bazterrak ikusiaz, eguraldi ederra dago eta...

(*joaten da, eta gortina kalea jasoaz agertzen da sagardotegia*)

BIGARREN ZATIA edo KOADROA

Agertzen da baserri etxea ezker aldean, goian leihoekin, eta sarbidea behean (etxekoa) sagardotegiko atea gordea edo bazterretik, etxe aurrean arbola eta kanpo gauzak, etxe kantoian aulki luzea, eta paretatik zintzilik ohol bat letra hauekin:

TXOTX BERRIA

HAMARGARREN IRUDIA.

X

Inazio (*bakarrik*)

INAZIO

Soinekoz aldaturik horra etorri, goiz bazkaldu eta, Txintxuenera. Urruti egiten da, baina sasoiak dena alderatzen du.

Agustin mutilzaharra nirekin batean zetorren eta hor bidean gelditu da zerbait egiten; itxoingo diot, laster da hemen.

Hau leku patxadakoa! Hau paraje sanoa, hau brisa ederra nabaritzen den hemen. Bela betean noala iruditzen zait ollaxka tartean bateltxoari urak zirri eginaz.

Ez dakit zergatik, baina nire bihotzean dardara gozo bat sentitzen dut. Hau atsegin gozoa, hau eztitasuna! Hau gozakai paregabea! Zein ederra eta pozgarria den alaitasun hau, bedeinkatua izan dadila Euskal Herria bere txoko, bazter, mendi eta zabalerarekin.

Agustin ez da ageri (*begiratuaz*); baso bat sagardo edatera noa. Jainkoak estreina on digula eta probetxu ona egiteko grazia. Orain ikusiko dugu fama bezain ona ote den (*eskuari txistu emanaz*). Abiadura har dezagun eta segadan barrenera. (*sartzera doala sartzen da Agustin.*).

HAMAIKAGARREN IRUDIA

XI

Inazio eta Agustin (*hau sartzen da kantari*)

AGUSTIN

«Inazio, gure patroï handia...»

INAZIO

Hala ere! Bizi haiz?

AGUSTIN

Uste diat baietz; ez al nauk ikusten?

INAZIO Bai, mutil... asperturik hire zain egotez, oraintxe nindoaan baso bat sagardo ateratzera; eta hi etorri haizenez gero, hoa aurretik, eta atera ezak.
 AGUSTIN Ni sakalari?
 INAZIO Ez duk esaten "sakalari", baizik "ateralari".
 AGUSTIN Bai, eta hi "sartulari" (*eskua ahora igoaz*)
 INAZIO Tira, tira...
 AGUSTIN Tira? zeini tira?
 INAZIO Ba... ba!
 AGUSTIN Baba? Ez duk txarra jateko.
 INAZIO Hitz gutxi eta berriketa asko.
 AGUSTIN Goazen, goazen. Hi beti zakurren isatsa bezala atzetik; ez diat ikusi munduan hi baino ospelagorik. Ni ez banintz, ez zekiat zer egingo huen hik; hik ez huen patroia izan behar, baizik eskribientea.
 INAZIO Goazen, goazen.
 AGUSTIN Nora?
 INAZIO Kupelen ondora.
 AGUSTIN Orain duk, bada, denbora.
 INAZIO Uste gabean bertsoan ari gaituk.
 AGUSTIN Hori edan gabe; gero kontuak eta kantuak.
 INAZIO Askotan umorerik gehiena pasatzeko asmoan etorri, eta gertatzen duk txarrena pasatzea.
 AGUSTIN Eta tontoturik jartzea.
 INAZIO Eta triste jiratzea.
 AGUSTIN Bai, gertatzen duk, baina goazen eta edan dezagun eta bakea eman dezagun.
 INAZIO Bai hori duk onena, goazen. (*doaz*)

HAMABIGARREN IRUDIA

XII

Pedro (*bakarrik; azaltzen da kopeta lehortuaz*)

PEDRO Hau leku alaia, hau giro ederra, eta hau sasoia ibiltzeko! Zer atsegina den honela oinez etorri eta sagardoa edatea! Euskaldunentzat gozotasun hoberik ez da munduan.
 A zer gustura edango dudan sagardoa!... Eta hau usain gozoa eta jatorra nabaritzen den kanpotik. Zer izango ote da bertatik? Noan eztarri lakar hau leuntzera Euskal Herriko olio leunarekin; hori da gure baltsamoa, hori da gure poz-emailea, euskaldun alaigarria.

HAMAHIRUGARREN IRUDIA

XIII

Lehengoa eta Agustin (*Pedro sagardotegira sartzekoan irteten da Agustin, eta topo egiten dute elkarrekin.*)

AGUSTIN Ia enkallatu ginen tirabira eginda.
PEDRO Bai, uste gabeko aurkiera zen... Agustin, nahi duzu edan?
AGUSTIN Ez; orain nator edan eta.
PEDRO Gizona, beste batek ez dizu gaitzik egingo!
AGUSTIN Ez, jauna, ez; kontuz ibili behar dugu, bestela gero apasta bota eta arrastan eramango gaituzte.
PEDRO Gero arte, bada. (*joanaz*)
AGUSTIN Bai; gero arte.

HAMALAU GARREN IRUDIA

XIV

Agustin (*bakarrik*)

AGUSTIN Hori sagardoa! Aingira baino leunago sartzen da. Eta hauxe da uste gabeko lekuan adiskideak bilatzea. Atzo kalean ikusi genuen Maria, erregidorearen etxera esnearekin joaten dena, dago sagardoa saltzen, eta... han "agur, Inazio konpainiarekin" esan zuen begiratu zorrotza boteaz. Inaziok eta horrek zerbait izan behar dute, esan dezagun, ezer gabeak ez dira izango, noski; neskak, behinik behin, etxe onekoa dirudi. Orain ere ongi etorri eginaz aurpegi alaiarekin hitz onak eta gozoak esan dizkio, eta Inazio bere ondoan dago, lapa arrokari erantsia bezala, zenbat ahalegin <egin> diodan kanpora irteteko; esan dit ongi dagoela han, ez daukala ibiltzeko gogorik, nekatua dagoela eta... zenbat horrelako aitzakia; baina... ni marrajoa naiz eta ukatzen badu ere, alferrik da, Mariak bihotza Inaziori marea-gora jarri dio, baina, gizagaixoa! Itsasoan trebea eta beldur gabea da, nahiz estropadan ere bai; baina neskari amodioa egiten katuarraina baino motelago eta txipiroia baino bigunago da.

Nik ez dut ezkontzeko asmorik; mutilzahar geratzeko asmoak ditut, bizi naizela eta ez naizela, baina ezkontzeko asmoa banu eta, horrek bezala, begiz joa izan, agudo beita bota eta amuan harrapatuko nuke, edo sarean leun-leun, eta saretik ihesi hasiko balitz, orduan klak! arpoiarekin niretzat. A tontotzarra!, egon hadi hor maskuloen gisa, denbora galtzen, baba dariala ahotik. Tokan ari direnei begira egotera noa

pixka bat eta laster etorriko naiz berriz laugarrena edatera, hemen buiak bezala beti batean egon gabe. (*doa kanpora*).

HAMABOSGARREN IRUDIA

XV

Pedro bakarrik. (*irteten da sagardotegitik*)

PEDRO Sagardo ederra dago; arrazoi zuten arrantzaleek; haiek jakiten dute non dagoen edari ona; hori da kolore fina! txinpartak pil-pil gainera ateratzen zaizkio, eta olio frantsesa baino leunago sartzen da, eztarrian zirri eginaz; hori mama! Zeinek lezakeen izan etxean urte guztirako.

HAMASEIGARREN IRUDIA

XVI

On Juan eta Pedro (*On Juan sartzen da txalekoa askatuarekin eta eskuan itzalgaia*)

ON JUAN Arratsalde on, Pedro!
PEDRO Hala berean dezala berorrek ere, on Juan. Hemengo aldi?
ON JUAN Bai, eguraldi ona dago eta, jiratxo bat egin denbora paseaz.
PEDRO Nahi du sagardo ona edan? Aterako dut, nahi badu.
ON JUAN Ez, ez; eskerrik asko; ezer jan gabe, ez dut ohiturarik, eta jan eta ere gutxi, baso pare bat gehiegi ditut arratsalde guztirako; ez zalea ez naizelako, baizik ezin dudalako.
PEDRO Berorrek balezake, bada, diruduna eta...
ON JUAN Ez da hori kontua; gaitz egiten didalako.
PEDRO Orduan, nahi badu, goian sukaldean bixigarri pixka bat eskatuko dut.
ON JUAN Ez, ez; lan hori ez hartu niregatik; neroni igoko naiz. Bidez, etxeko andreari diosal egingo diot. Goazen, Pedro, zu ere igo zaitetz; elkarrekin denbora atseginduko dugu hobeto.
PEDRO Nahi duen bezala. (*hizketan joaten dira*)

HAMAZAZPIGARREN IRUDIA

XVII

Mutila (*txarroa eskuan duela, sagardo bila*).

MUTILA	Ez dute gutxi edaten zelaian dauden haiek: hirugarren txarrokadaren bila nator. Hori entrama! (<i>sartzen da sagardo bila</i>)
1 TOKALARIA	Ez da basta galtzea, txandaka izaten dituk lukainkak.
2 TOKALARIA	Hurrena, zuen txanda izango duk irabaztea.
3 TOKALARIA	Bai, galtzen ez badugu.
4 TOKALARIA	Hori egia. (<i>sartzen dira edatera.</i>)

HEMEZORTZIGARREN IRUDIA

XVIII

Agustin; gero mutila (*Agustin etortzen da tokalarien ondoren*)

AGUSTIN	A zer partidua jokatu duten horiek! Edan dezagun guk ere baltsamo hori. Oraindik hor egongo da Inazio, kriseiluen gisa, begiak dirdir eginaz. (<i>bakailaoa gerrikotik atera eta janaz</i>) Bakailao hau neskazaharra izango zen, bai lehorra eta gazia dagoela! (<i>Mutila irteten da txarroarekin eta estropezu egiten du koskan.</i>)
AGUSTIN	Ia txarroa isuri eta sagardoa hautsi huen.
MUTILA	Ederki eman ere.
AGUSTIN	Txiki: osabaren etxean parienterik ba al duk?
MUTILA	Bai. (<i>zeharka begiratuaz</i>)
AGUSTIN	“Bai, jauna” esaten duk.
MUTILA	Kaballeroari bai!
AGUSTIN	Eta ni zer nauk, bada?
MUTILA	Bakalleroa; orain ere bakailaoa eskuan daukazu.
AGUSTIN	(<i>erdi parrez txuliatuaz</i>) Bidean txarrotik egiten al duk txurrit?
MUTILA	Honantzean ez, hutsa egoten da eta...
AGUSTIN	Eta harantzean?
MUTILA	Batzuetan bai, pixka bat.
AGUSTIN	Eta besteetan?
MUTILA	Besteetan... gehixeago. (<i>joanaz</i>).
AGUSTIN	A zer aparejoa aterako den hori ere handitzean, baserritar eskola berbera dakar! (<i>irteten dira sagardotegitik lehengo lau tokalariak</i>)
1. TOKALARIA	Goazen; orain lagunak trukatuta.
2. TOKALARIA	Ez ez; lehengoak berak. (<i>joanaz</i>)
3. TOKALARIA	Bai, bai; ez pentsa ikaratuko garela.
4. TOKALARIA	Hori, hori; lehen bezala (<i>joaten dira.</i>)

HEMERETZIGARREN IRUDIA

XIX

Agustin bakarrik

AGUSTIN

Hau diferentzia! Hauek jostatzen ederki beti kanpoan, eta Inazio, hauspoaren haizea bezala, beti barrenean. Edan dezagun bosgarrena, seigarrenari bidea erakusteko.

(sartzera doala azaltzen da Praixku)

HOGEGARREN IRUDIA.

XX

Agustin eta Praixku *(hau dator piparekin; zahar patxadakoa.) (Ezker aldetik)*

PRAIXKU

Kaixo, gizon. Bagaude?

AGUSTIN

Bai, aitona, bagaude.

PRAIXKU

Ni ez naiz aitona.

AGUSTIN

Ni ere ez gizona.

PRAIXKU

Zer zara, bada, pertsona?

AGUSTIN

Ez; mutilzaharra, Jaunari graziak.

PRAIXKU

Ni bezala, orduan.

AGUSTIN

Bai eta nahi ere, lagun zaharra. Kanpo onak al daude?

PRAIXKU

Bai, bai; honenbestean kontentu gara.

AGUSTIN

Orain sagardoa edatera, e?

PRAIXKU

Ez, ez; gazteentzat sagardoa; nik edaten dut, baina nahiago dut goian ardo pixka bat edan arreba Terexari hitz bi eginaz; gainera ikusi dut gure etxe jabe on Juan honantz etortzen eta haren kondairak eta ipuinak aditzen ez gara behin ere aspertzen. Hain ona da!

AGUSTIN

Baina baso bat sagardo edan eta igoko da.

PRAIXKU

Ez, egia esaten dizut; nahiago dut baso bat sagardo baino bi baso ardo.

AGUSTIN

Ez du Miserikordiako agureen antzik.

PRAIXKU

Zer bada?

AGUSTIN

Haiek baso bat sagardo eta bi baso ardo baino nahiago dute...

PRAIXKU

Zer?

AGUSTIN

Txopin bat ardo. Nik, berriz, sagardoari nahitasun gehiago diot.

PRAIXKU

Bai; bakoitzak bere iritziak.

AGUSTIN

Adi beza: sagardo saltzen dagoen neskatxa eder hori berorren iloba da, beraz?

PRAIXKU

Bai; zergatik?

AGUSTIN

Jakiteagatik.

PRAIXKU

Gustu baduzu, igo zaitetz gora nirekin.

AGUSTIN

Ez, eskerrik asko.

PRAIXKU
AGUSTIN

Gero arte, bada.
Gero arte, lagun zaharra. (*Praixku sartzten da*)
Noan ni ere edatera. (*sagardotegira joaten da*)

HOGEITA BATGARREN IRUDIA

XXI

On Juan (*leihotik*) eta gero Andre Terexa

ON JUAN

Hau giroa! Hauek kanpo-zelai begiragarriak! Zer atsegina ematen duen alaitasun honek! Zer ederra den Jaungoikoaren obra! Bedeinkatua eta bedeinkatua beti eta beti izan dadila gure egilearen izaera dontsua!
(*Andre Terexa irteten da plater eta baso bi hutsekin sagardo bila*)

ANDRE TEREZA

Gure nagusiak txotxekoa behar omen du eta, eraman beharko diogu. (*sartzten da*)

HOGEITA BIGARREN IRUDIA.

XXII

Agustin on Juan eta andre Terexa

AGUSTIN

(*sagardotegitik atereaz*) Ederra dago; hori mama!

ON JUAN

(*leihotik*) Zer dugu, Agustin? Bakarrik?

AGUSTIN

Ez, jauna; Inaziorekin.

ON JUAN

Eta non dago bera?

AGUSTIN

Nafarroan, jauna, Bera.

ON JUAN

Ez; Inazio.

AGUSTIN

Kupel ondoan.

ON JUAN

Eta Maria al dago sagardo saltzen?

AGUSTIN

Bai, jauna.

ON JUAN

Beraz, ez da misterio han egotea bere ondoan. Gizagaixoa! Igarria nago gure etxera esnearekin etortzean zelatatzen duela. Zer mutil ona den (*andre Terexa sagardoarekin.*)

ANDRE TEREZA

Hemen naiz ni bi baso beteekin.

AGUSTIN

Adio, amona.

ANDRE TEREZA

Begira: ni ez naiz amona, desioak baditut baina.

AGUSTIN

Uste dut, bada, laster izango ote den.

ANDRE TEREZA

Nire alabak ez du gizonik.

AGUSTIN

Ez, baina bai gizonaia, ona eta zintzoa. Ez da egia, on Juan? (*leihora begiratuaz*)

ON JUAN

Bai; oso mutil ona eta prestua da.

ANDRE TEREZA

Hauek esatekoak, hauek... (*igotzen da etxera*)

ON JUAN

Zatoz, Agustin, gora; igo zaitez; xardina biziak jango dituzu.

AGUSTIN
ON JUAN
AGUSTIN

Ez, jauna; niri itoak gustatzen zaizkit.

Gizona...!

Eskerrik asko, jauna; bakailao... egiatako bakailaoa jaten ari naiz.

ON JUAN
AGUSTIN

Igo zaitetz mokadu bat bederik hartzera.

Nahi duen bezala, bada; hor nator (*on Juan sartzen da leihotik*) A...! (*jendeari*) Hori da gizon kanpetxanoa; arrantzale eta herriko jende guztiak maite du aita on bat bezala. Eta horrek dituen karrakelak! (*eskuekin diruengatik behatzak igurtziaz*) Igo nadin, haserretu ez dadin. (*igotzen da*)

HOGEITA HIRUGARREN IRUDIA

XXIII

Inazio bakarrik (*irteten da sagardotegitik*)

INAZIO

Hau lanbide penagarria! Kulubizen antzera dakart burua. Zer hutsa naizen! Zorionaren oparotasunez betea aurkitu naiz, nire bihotz zurrupagarriaren ondoan, hitz bi barrengoak esateko asmo osoan alderatu naiz, kolpez nire asmoa berari esan nahian eta... bakartasunean zerbait esateak beldurtu nau; gero norbait etorri da eta orduan, ez zitzaidan ondo iruditzen esatea. Desiratzen nuen berriz bakarrik gelditzea, eta bruma jartzen zitzaidan; pentsatzen nuen edan eta gehiago bizitu edo piztuko nintzela; edan eta alferrik! ezin inola! (*sagardotegira begira*) Gaixoa! ez dakizu nik zenbat sufritzen dudan zugatik... bai, zugatik. Berak eman dit ogi gainean jatera zihoan puska, zer amodiorekin! Bazirudien ogi gainean bere bihotza ematen zidala! Eta nik orduan hartu eta goxogoxo begiratuaz esan diot “eskerrik asko”; zeinak erantzun didan: Barkatu gutxigatik, ahal banu, emango nizuke dudana eta ez dudana. Ia haur bat bezala negarrak txuliatu nau eta hasi naiz malkoak ezin gorderik, lehertuko ez banintzen, alde egin behar izan dut lagunen aitzakian. Noan oster... baina ez! ez naiz joango... baina... bai, joan egingo naiz; itsaso txarrari ere gogor egiten zaio, eta nik ere barrengo beldur gogorrari, gogorrago egingo diot. Noan, den bezala nire asmo on hau esatera... Bai; gauzak hasiz gero, ahal den lehenena egin behar dira...

Han egongo da gaixoa, gau tristean izar dizdizaria egoten den bezala, bakarrik estalpe ilunean, eta zenbat eta iluntasun gehiago inguruan, orduan eta dizdirasun eta argitasun gehiago eginaz.

Ezin egon naiz soseguz, olatutan, baga handi tartean nabilela iruditzen zait.

(gora begira) Aingeru guardakoa, arren! lagun iezadazu indartzen fede oneko pauso hauetan.

(sagardotegira sartzera doala irteten da Agustin etxetik)

HOGEITA LAUGARREN IRUDIA

XXIV

Agustin eta Inazio.

AGUSTIN Inazio, bizi al haiz?
INAZIO Ez al nauk ikusten?
AGUSTIN Bai, ia itoan ateratako baten moduko begiak dauzkak!
(txuliatzen) Tirabira egin al duk?
INAZIO Bai, marea... ia.
AGUSTIN A! Maria! Hau duk komeria! Hi hor egon haizen bitartean goian izan nauk, on Juan erregidorea eta Pedro alaiarekin mokadu bat hartzen, eta kontu ederrik esan ditek hiregatik.
INAZIO Zer zioten, bada?
AGUSTIN *(jendeari)* A zer ikara eman behar diodan!
(orain berari) Mutil... lagun on batengatik esan behar ez direnak.
INAZIO Esan iezadak zalantzan eduki gabe.
AGUSTIN Ez al haiz haserretuko egia esanda?
INAZIO Egiak ez dik inor ikaratzen.
AGUSTIN Bada... esan ditek; hi tonto bat haizela, neskatxaren ondoan buia baten moduan hagoela, neskatxa horrek bere majoa baduela, eta laster senar aberatsa hartzeko asmoetan dela, tantza lodia jarri behar dela amuan hori harrapatzeko, eta horrelako makina bat gauza; eta haiekin batean zagok beste gizaseme ezkongai bat, lehenago hemen nirekin hizketan egon eta igo duk, mutil...
INAZIO Ez duk posible Mariak niri hori egitea; bestela zerbait esango zidaan, eta gainera hain ongi portatu duk nirekin, jatera zihoanetik puska bat eman zidak.
AGUSTIN Hark zer egingo zian, bada? Pux! Denena: sagardoa saltzeagatik datorren guztiari ondo egin. A tontoa! Hik ez dakik hemengo kontua; utz itzak txorakeriak, ez fidatu gonadunekin; denek elkarren antza ditek eta negarra besterik ez ditek ematen. Mutilzahar, mutilzahar, ni bezala, biba mutilzaharrak!, galtzadunak libre, kaioen modura lema jiratu eta nahi den aldera, emakumeak eta katuak sukaldera, baina ez hadi horrengatik tristatu; goazen, edan dezagun eta bakea eman dezagun.

INAZIO
AGUSTIN

Ez; gaitz egingo zidak. (*esertzen da*)
(*jendeari*) Hori ziria sartu diodana gizagaixoari; baleki dena gezurra dela eta gainera bere alde denak aritu direla esanaz desiratuko edo poztuko liratekeela biek bat egitea... Bai; gauza guziak zenbat eta neke gehiagorekin eta nahigabe handiagorekin igaroz gero, hala berean gozotasun eta atsegintasun hobeak ondoren izaten dira. Sinistu dit gizagaixoak! Hain da lotsatia eta beldurtia! Orain edatera noa, eta bakarrik badago neska,... horren orde neronek esango diot ez gehiago sufriarazteko eta goian zer hitz egin duten. (*Inaziori*) Ba al hator? Ni edatera noak. (*Inaziok kasurik ez dio egiten*)

AGUSTIN

(*jendeari*) Bai; neskari esango diot horren asmoa, beragatik txoratzen dagoela, eta on Juanek ere nahi duela biak batzea.

(*Inaziori berriz*) Inazio, mututu egin al haiz?

INAZIO
AGUSTIN

(*oso lehor*) Ez!

Goazemak, edan dezagun penak ahazteko, orain edaten duanak indartuko ditik kemenak.

INAZIO
AGUSTIN

Hoa zori-orduan!

Ordu erdian ez al da igual?... Goazemak, Maria... behea zagok, bestela bakarrik noak eta bienak edango ditiat. (*joaten da*)

HOGETA BOSGARREN IRUDIA

XXV

Inazio bakarrik (*altxaturik*)

INAZIO

Hau samintasun arantzazkoa bihotzean sentitzen dudana! Hau nahigabezko egarri lehorra! Bide zuzenean estropezu egiten duenak zer egingo ote du okerrean? Pazientzia har dezagun ahal den moduan, bai, pazientzia. Jauna: izan bedi hau zure borondatea. (*pixka bat egonda*) Agur, Txintxueneko etxe gogoangarria! Beti-betiko agur, bizi naizen artean, ez naiz hona eta ingurura ere etorriko eta azalduko: baina... (*indarrez*) bai, jakin nahi dut zein den beste galai hori, ezagutu nahi dut, nire begiz ikusi gabe ez naiz sosegatuko. Bestela, berriz, Mariaren ahotik aditu gabe ezetza, ez naiz atzeratuko; eguraldiak ere mudatu egiten dira; esango diot Mariari beste horrek nik baino diru gehiago izango duela baina bihotza askoz nik baino txikiagoa duela. Zein ote da ori? A! Agustinek esan dit harekin hizketan hemen egon dela. Hori ote da? Nik egingo dut modua ezagutu edo zein den jakiteko.

HOGEITA SEIGARREN IRUDIA.

XXVI

Lehengoa, on Juan, Pedro eta gero Agustin.

(on Juan eta Pedro etxetik irtenda.)

- ON JUAN Nola gara, Inazio? Euririk izango al dugu biderako? Zer deritzozu?
- INAZIO Jauna, izan liteke, trumoi handia dabil hemen inguruan.
- PEDRO Itxurarik ez dauka, bada.
- INAZIO Itxurarik ez, baina erasoak uste gabeen sortzen dira eta trumonada lehertzen da.
- ON JUAN Bai batzuetan, baina orain...
- INAZIO Orain galanta eta uste gabekoa.
- AGUSTIN (*sagardotegitik aterarik*) Hemen naiz ni ere; berok etxe aldera joateko asmoan izango dira, ez da egia?
- ON JUAN Bai; zuek ere bai?
- AGUSTIN Ez, jauna; guk oraindik ez dugu arrantzarik egin baina... harrapatuko dugu.
- PEDRO Ba al da harrapatzeko asmoa?
- AGUSTIN Jarria dugu, behintzat, amua.
- PEDRO Beste paretxo bana edan beharko dira oraindik harrapatzeko, e?
- INAZIO (*triste*) Nik ez behintzat tantorik ere... Nahiago nuke hemendik hogeit mila itsas erdirago banengo.
- ON JUAN Bete al zara pozez?
- INAZIO Ez, jauna; nahigabez.
- PEDRO Zer duzu, bada? Zotina?
- INAZIO Barrena daukat oso mina.
- ON JUAN A! Hori da bihotzerrea.
- INAZIO Bai, jauna, bihotza errea, kiskaltzen daukat.
- ON JUAN Zu beti egia gordetzen.
- INAZIO Eta berok ilea hartzen.
- PEDRO Beraz Maria, e?
- AGUSTIN Bai; lehenago esan diot dena, eta ez du sinistu.
- INAZIO Ez ikusi arte.
- ON JUAN Bai, Inazio, bai, sinistu zenezake.
- AGUSTIN Bere ahotik orain bertan adituko duk. (*joaten da Mariaren bila.*)
- P. eta on J Bai, bai; egia dela.
- INAZIO Eta berok nondik dakite?
- ON JUAN Bere amak eta guk, denak lehenago gauza horren gainean mintzatu gara. Nola nahi duzu guk gezurra esatea? Alaitu zaitez, gizona, horrela, motel egon gabe; suerte txarra al da, bada, Mariarentzat?
- INAZIO Eta goian berarekin egon den horrek maite al du Maria?
- ON JUAN Maite? Txoratzen dago, eta nola ez? egunero etortzen da hona eta beti erregaliak ekartzen dizkio berari.

INAZIO Horrenbesteraino?
PEDRO Bai; zu ezagutzeko asmoak ere baditu. Poztu, Inazio, gauzak seguru jakinez gero, penak utzi egin behar dira.
INAZIO Ezin liteke hori izan.
ON JUAN Baietz, gizona.

HOGEITA ZAZPIGARREN IRUDIA

XXVII

Lehengoak, Agustin eta Maria (*hau Agustinek eskutik helduta.*)

AGUSTIN Hona hemen bera.
INAZIO (*zeharka begiratuaz*) Eta zer ederra den esker beltz hori!
AGUSTIN Maria, esan egia denen aurrean; ez al da egia gizongaia baduzula?
MARIA Bai eta bai.
INAZIO (*jendeari*) Goian dagoena izango da!
AGUSTIN Aditzen duk, Inazio? Esan berriz, Maria.
MARIA Baietz.
INAZIO Eta baietz esaten du!
ON JUAN Esango ez du, bada?
AGUSTIN Eta ez da egia asko maite duzula?
MARIA Berak ni baino gehiago.
INAZIO Faltsua! Etsaiarekin zaude infernuan eta ni jartzen nau purgatorioan!
AGUSTIN Ez al da egia, mutilak nahi badu, berehala ezkonduko zarela berarekin?
MARIA Bai pozik; horixe.
ON JUAN Aditzen duzu, Inazio?
PEDRO Arrazoi al genuen?
INAZIO Bai, entzun dut; baina ez dut sinisten.
MARIA Bihotzetik esaten dut, bada.
INAZIO Zuk bihotzetik? (*jendeari*) Honek ez du bihotzik; bestela kortxozkoa da.
AGUSTIN Eta nahi duk jakin zein den arrantza hau egiten duen suertosoa?
INAZIO Esan agudo, amuz zulatzen eduki gabe.
AGUSTIN Bada... hik gutxiena pentsatzen duana. Maria ekarzu bostekoa. (*jendeari*) Hau eskua, aingira baino leunagoa da! Eta hik (*Inaziori*) ere ekarzak bostekoa, horra biak itsasoko arrantza-obispoak elkartu; mutilzaharrek zerbaiterako balio dugu.
INAZIO (*adiskide*) Egia al da ikusten nagoen guzia?
MARIA Bai, Inazio, nire patroi handia.
AGUSTIN Hain egia, nola den itsasoa gazia?

INAZIO (pozez) Jesus maitea, Mariatxo maitea, lagun zahar maitea, berok maiteak...
 ANDRE TEREZA (leihotik) Zer da oihu horiekin? Txoratu egin al zarete, edo zer pasatzen da?
 AGUSTIN Betor, betor, amona-gaia.
 ANDRE T. Hor naiz berehalaxe.
 ON JUAN (Pedrori) Ondo konpondu dira.
 INAZIO Baina ikusten nagoen egia guztiak gezurra dela dirudi.
 ON JUAN Kontentu zarete, e?
 PEDRO Egon litezke.
 AGUSTIN Erria kordela.
 INAZIO Hau poza nirea! Esaniezadazu berriz eta berriz; ez naiz aseko entzutez, nire izar ederra.
 MARIA Zurea naiz eta zuretzat izango naiz.
 ANDRE TEREZA (etortzen da) Beraz, konpondu zarete?
 AGUSTIN Konpondu? hautsiak al daude, bada?
 ON JUAN Ea, aditu nire iritzia edo oraingo asmoa. Nola biak zareten nire ezagunak edo txit maiteak, ni izango naiz zuen apaidina, berori, andre Tereza, amaidina, eta zuek izango zarete testigu.
 AGUSTIN Jauna, hauek ez dute testigu beharrik.
 ANDRE TEREZA (Mariari) Orain kontentu izango zara?
 INAZIO Nik harrapatzen ditudan arrainik goxoenak zuretzat izango dira, maite nirea.
 AGUSTIN Errien banda! Noizbait garbi esango duk zerbait, lagun zaharra; eta lehenbizi izaten duzuen fruitua harra izaten bada...
 DENAK Zer?
 AGUSTIN Nik erakutsiko diot igeri; eta mielga izaten baldin bada...
 DENAK Zer, zer?
 AGUSTIN Nik botako dut putzura.
 ANDRE TEREZA Gizona, txoratu egin al zara?
 AGUSTIN Bai; ur gazitan bedekatzera, salitrea izan dezala.
 INAZIO Horiek ikarak pasa ditudan! Aizak, Agustin: eta zein da bada hor goian dagoen ezkongaila eta erregaliak ekartzen dizkiona honi?
 ON JUAN Al... Horren zeloak zenituen? Bada hori da... ezagutuko duzu agudo.
 AGUSTIN Bai; deituko diot nik. (joaten da)
 ANDRE TEREZA Zu zara, beraz, Inazio?
 INAZIO Bai, andrea; zerbitzeko.
 (Agustin eta Praixku azaltzen dira)
 AGUSTIN Hona hemen. Topo egin dut; bazetorren behera.
 INAZIO Hori al zen? Aitonon bat da hori.
 MARIA Bai, nire osaba da.
 INAZIO Orain konturatzen naiz zu maitatzea eta erregaliak ekartzea.
 PRAIXKU Kontentu zarete, e? Horrela, horrela, urte askoan.

AGUSTIN Horrela badaude urte askoan, nekatuko dira.
 PEDRO (*Agustini*) Horrek behintzat harrapatu du arrain ederra.
 AGUSTIN Bai, dontzeila freskoa; eta nik hau baino gutxiago ez
 naizela esateko gaur, harrapatuko dut izugarrizko...
 DENAK Zer?
 AGUSTIN Izugarrizko lupia.
 PRAIXKU Ederki, ederki (*jendeari*) Hori arrantzale erreminta.
 ON JUAN Orduak aurreratzen ari dira eta abiatu behar dugu.
 AGUSTIN Edan dezagun, bada, despeditzerako denak elkarrekin
 lehorreko arrantzaleen izenean; (*jendeari*) eta berok
 gustu badute, etorri txotx berria edatera, ez dago edan
 eta pagarik, neronek emango diet gaur pozik nahi
 duten guzia.
 PEDRO Abiatuko al gara, bada, etxera?
 ON JUAN Bai, abia gaitezen; baina horretarako, lehenbizi, Inazio,
 aurreko jaun horiekin despeditu zaitez.
 MARIA Bai; jendeari agur egin gabe ez da ondo joatea.
 PEDRO Arrazoi du Mariak. (*bitarte honetan andre Terexa eta*
Praixku hizketan atzeago egoten dira)
 INAZIO (*aurreratuta*) Jaunak...
 ON JUAN Tira, segi.
 INAZIO Zereko.... zera.... eta... bai... eta...
 AGUSTIN Alde egin ezak; horretarako ere ez duk balio. Hiri dena
 bestek esan behar dik. (*jendeari*) Honek esan nahi
 duena da...
 MARIA Berak esan dezala.
 DENAK Bai, bai,
 INAZIO (*aurreratuta*)

Nola den hau izan behar
 duena nire emaztea,
 gustatu bazaiote, txalo
 bat nahi nuke ematea;
 eta onez, bada, beron
 gaurko borondatea
 kontentu geldituko da...
 Lehorreko arrantzalea.

AZKENA